

opusdei.org

Alvaro del Portilloren biografia

Alvaro del Portillo Monsinorea Madrilen jaio zen 1914ko martxoaren 11n, zortzi anai-arrebetan hirugarrena, familia kristau batean. Bideetako Ingeniaritzan, Filosofian eta Zuzenbide Kanonikoan doktore zen

2014 Ots 24

1935ean Opus Deiko kide egin zen, San Josemaria Escriva de Balaguerrek sortua 1928ko urriaren 2an. Opus Deiko bokazioa leialtasun

osoz bizi izan zuen, lan profesionala santutuz eta eguneroko eginkizunak betez, eta apostolutza zabal bat burutu zuen bere ikaskide eta lankideen artean.

Laster San Josemariaren laguntzarik sendoena bihurtu zen, eta haren ondoan ia berrogei urte egon zen laguntzaile hurbilena izanik.

1944ko ekainaren 25ean apaiztu zen. Orduetik, pastoral ministerioan bete-betean jardun zen, Opus Deiko kideen eta arima guztien zerbitzuan.

1946an Erromara joan zen bizitzera, San Josemariaren ondora. Gainera, bere Elizarekiko zerbitzu nekaezina, Egoitza Santuak Erromako Kuriako Dikasterio batzuen aholkulari bezala emandako mandatuak arduraz betetzen agertu zen eta, bereziki, Vatikanon II.a Kontzilioko lanetan gogotsu parte hartzen.

SAN JOSEMARIAREN LEHEN
ONDORENGOA 1975eko irailaren
15ean San Josemariaren lehen
ondorengo hautatua izan zen.
1982ko azaroaren 28an Egintza
Prelatutza Pertsonal bezala
eraikitzean, Joan Paulo II.a Aita
Santuak Opus Deiko Prelatu izendatu
zuen, eta 1991ko urtarrilaren 6an
gotzaingintza eman zion.

Jainkoaren Zerbitzariaren gobernu
lan osoaren ezaugarria
Fundatzaileari eta haren mezuari
izan zion leialtasuna da, lan pastoral
nekaezin baten bidez Prelatutzaren
apostolutzak zabaltzeko, Elizaren
zerbitzuan.

*San Josemaria Don Alvaro del
Portilloarekin*

Berak jasotako misioa betetzen bere
burua emateak, San Josemariaren
irakatsiei jarraituz, bere Jainko
semetasunaren zentzu sakona zuen
oinarri, Espiritu Santuaren

eraginaren fruitu. Horrek
Kristorekin bat egitea zeraman,
Jainko Aitaren nahiera uste onez
utzita, otoitza, Eukaristia eta Ama
Birjinarenganako jaiera samurra
zituela etengabeko janari.

Bere Elizarekiko maitasuna Aita
Santuarekin eta Gotzainekin zuen
batasunean agertzen zen. Guztiei
zien maitasuna, bere ardura Opus
Deiko seme-alaben alde, apaltasuna,
zuhurtasuna eta sendotasuna,
alaitasuna eta xalotasuna, bere
buruaz ahaztea eta Kristori arimak
hurbiltzeko gogo bizia –gotzain
goiburuan ere islatzen zena: *regnare
Christum volumus!*– bere begitarteak
hedatzen zuenadeitasun, baretasun
eta umore onaren ondoan, bere
arimaren irudia osatzen duten
ezaugarri dira.

1994ko martxoaren 23ko
egunsentian, Lurralde Santuetara
egindako erromesaldi batetik itzuli

eta ordu gutxi geroago, Jaunak beregana deitu zuen bere zerbitzari on eta leiala. Jaiera handiz jarraitu zituen Jesusen pausoak lur honetan, Nazaretetik Hilobi Santuraino.

Aurreko goizean bere Azken Meza Jerusalemgo Afaltegian eman zuen.

Martxoaren 23an bertan, Joan Paulo II.a Aita Santua haren gorpuaren aurrean otoitz egitera joan zen.

Orain gorpua Bakearen Santa Maria Prelatu-elizako kriptan datza –viale Bruno Buozzi, 75, Erroma– Opus Deiko kideen eta beste milaka pertsonen otoitzak eta maitasunak etengabe lagunduta.